

**HONDAKIN ZERBITZUKO PEOI-GIDARI LANPOSTUA ALDI BATERAKO BETETZEKO  
HAUTAGAIK HAUTAPROBEN BIDEZ KONTRATATZEKO DEIALDIA**

**1.-. Oinarria.- Arau orokorrak.**

1.1. Deialdi honen xedea da lehiaketa-oposizio bidez Sakanako Mankomunitateko Hondakin Zerbitzuan peoi-gidari lanpostua betetzeko lan-poltsa bat eratzea, euskara B1 hizkuntza-eskakizuna duena, lanpostu-hutsak, laneko bajen ondorioz behin behineko ordezkapenak, oporrak eta mankomunitateko zerbitzuak indartzeko unean uneko beste edozein behar betetzea.

Hautaketa-prozesu hau edo horren probaren bat gainditzen duten pertsonen osatutako enplegu-poltsa bat egingo da, puntuazio-ordena zorrotzaren arabera ordenatuta. Poltsa horrek 5 urteko indarraldia izango du, eta hondakinak biltzeko zerbitzuko lanpostu hutsak betetzeko erabiliko da. Poltsak lehentasuna izango du aurrekoetatik edozeinen gainetik. Lan-poltsa egiteko, Herri Administrazioen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginean desgaitasuna duten pertsonen buruz xedatutakoa hartuko da kontuan.

1.2. Deialdi hau egingen da Nafarroako Administrazio Publikoetan Sartzeko Erregelamendua onesten duen ekainaren 5eko 113/1985 Foru Dekretuan eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan ezartzen denari jarraituz.

1.3. Lanpostua betetzeak lanpostuari, mailari eta kategoriari dagozkion eginkizunak betetzea dakar berarekin.

1.4. Deialdia egin duen administrazioko organo eskudunak ezarriko ditu lanaldi eta lan ordutegiak. Lanaldiaren araubidea urte bakoitzerako onartutako egutegian jasoko da, administrazio-organoko eskudunek zerbitzuaren funtzionamenduan gerora sortutako beharrei erantzuteko aldatu ahal izango dutelarik.

1.5. Eginkizunak:

Zerbitzuaren beharren arabera eta zerbitzuko arduradunak ezarritako jarraibideen arabera, gidari edo peoi lanak egingo ditu, edozein dela ere, bilketa-zerbitzuaren edozein ibilbidetan. Halaber, Utzubarren dagoen hondakin-instalazioan ere egingo ditu lanak, baldin eta prestakuntza bera behar badute.

**2.-. oinarria. Izangaien betebeharrak.**

2.1. Oposizio-lehiaketa honetan onartuak izateko, izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean:

- a) Espainiako nazionalitatea, edo Europar Batasuneko estatu kideren bateko nazionalitatea edo Europako Erkidegoak sinatu eta Espainiako Estatuak berretsitako nazioarteko tratatuen aplikazio-eremuan sartutako estatu bateko nazionalitatea izatea, baldin eta abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 7. artikuluan ezarritakoaren arabera langileen eta haien senideen zirkulazio askea jasotzen badute.
- b) Adinez nagusia izatea eta nahitaezko erretirorako ezarritako adina ez gainditzea.

- c) Eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean, Eskola Ziurtagiria, Eskola Graduatua, DBHko Graduatua, Erdi Mailako Lanbide Heziketa edo baliokidea izatea, edo titulu hori lortzeko eskubideak eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean ordaindu izanaren frogagiria. Atzerrian lortutako titulazioen kasuan, homologazioa egiaztatzen duen egiaztatzea eduki beharko da.
- d) C mailako gidabaimena edukitzea, lanbide gaikuntzako agiria indarrean izanik.
- e) Bete behar diren eginkizunetan aritzeko behar den gaitasun fisiko eta psikikoa izatea.
- f) Eginkizun publikoetan aritzeko ezgaitua edo gabetua ez egotea eta administrazio publikoren baten zerbitzuetik berezia ez egotea. Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek frogatu beharko dute ez dutela beren estatuko funtzio publikoan sartzea eragozten dien diziplina zehapenik edo zigor penalik.
- g) Europako Esparru Bateratuko **B1 mailako euskara-titulua** izatea edo Mankomunitateak egingo duen euskara ezagutza proba gainditzea.
- h) Langabeen edo enplegua hobetzeko eskatzaileen erregistroan inskribatuta egotea.

2.2. 3. oinarrian ezarritakoa izan ezik, plaza lortzen duen izangai gaindituak egiaztatu beharko ditu baldintza horiek, deialdian aurreikusitako epean eta moduan. Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean beteko dira, eta hautaketa-prozesuan zehar eta izendapenaren unera arte baliatu beharko dira.

2.3. Halaber, parte hartzeko eskabidearekin batera, izangaiek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte, hala badagokio:

- 100eko 33ko desgaitasuna edo handiagoa dutenek parte hartzeko eskabidean adierazi beharko dute, eta organo eskudunak emandako dokumentazioa erantsi beharko dute. Halaber, beharrezkotzat jotzen dituzten denbora eta bitartekoaren balizko egokitzapenak eskatu ahal izango dituzte; kasu horretan, hala adierazi beharko dute eskabidean, eta, gainera, aparteko orri batean adierazi beharko dituzte eskatzen dituzten egokitzapenak.
- 100eko 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duten pertsona horiek Nafarroako Autonomia eta Garapen Agentziara bidaliko dira, proba egiteko behar diren denbora eta bitartekoak zehazteko.

### **3. oinarria. Eskabideak.**

3.1. Ekainaren 5eko 113/1985 Foru Dekretuak onartutako Nafarroako Administrazio Publikoaren Sarrerari buruzko Erregelamenduaren 42. artikuluan xedatutakoaren arabera, aldi baterako langileak hautatzeko prozedurek ahalik eta arinen kontratatze aukera eman beharko dute.

Kasu honetan, urgentzia kontuan hartuta, enplegu-eskaintza bat izapidetuko da Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren Altsasuko (Nafarroa) Enplegu Bulegoan, deialdiaren 3. oinarrian aipatzen diren betekizunak eta baldintzak betetzen dituzten enplegu-eskatzaileei zuzendua.

Halaber, hautaketa-prozesuan onartu ahal izango dira baldintza horiek betetzen dituzten izangai guztiak, baldin eta Altsasuko (Nafarroa) Enplegu Bulegoak deitu ez baditu ere, edozein enplegu-bulegotako enplegu-eskatzaileen egoeran badaude eta eskabidearekin batera egiaztatzen badute, 3. oinarriko betekizunaren arabera.

3.2. Hautagaiek dagokion eskabidea aurkeztu beharko dute **Sakanako Mankomunitatearen bulegoetan** (Uriz kalea 32, Lakuntza), **2025ko otsailaren 21eko 14: 00ak baino lehen**, edo, bestela,

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39-2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako edozein bide erabiliz. Kasu horretan, adierazitako epea baino lehen, dokumentazioa aurkeztu izanaren egiaztagiria bidali beharko dute helbide elektronikoa honetara: [idazkaria@sakana-mank.eus](mailto:idazkaria@sakana-mank.eus).

Mankomunitatearen egoitza elektronikorako sarbidea honako hau da: <https://sedeelectronica.sakana-mank.com/es/index.aspx>.

Eskabidea posta-bulego batean aurkeztea erabakitzen bada, gutun-azal irekian egingo da, posta-zerbitzuko langileek data eta zigilua jar ditzaten eskabidea ziurtatu aurretik, eta mezu elektronikoa bat bidali beharko da aurretik zehaztutako helbidera, inguruabar hori adierazita.

Eskabideak argitaratutako eskabide ereduaren arabera egin beharko dira, eta, bertan, izangaiek eskatzen zaizkien baldintza guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute, aurkezteko epea amaitzen den egunari dagokionez.

3.3. Eskabidea behar bezala beteta aurkeztu beharko da. Harekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- a) NANaren edo hautagaiaren nortasun edo nazionalitatea egiaztatzen duen agiriaren fotokopia eta, hala badagokio, 2.1. oinarrian eskatutako gainerako baldintzena.
- b) C mailako gidabaimenaren eta indarrean dagoen lanbide gaikuntzako agiriaren fotokopia (CAP).
- c) Deialdian eskatutako titulazioaren fotokopia, edo hori lortzeko eskubideak ordaindu izanaren frogagarria:
  - a. Titulazio akademikoa.
  - b. Eskatutako euskara-mailaren titulazioa.
- d) Euskara mailako probaren eskaera, agiri bidez egiaztatzen ez bada.
- e) Enplegu Agentzia batean enplegu-eskatzailerik gisa edo lana hobetzeko erregistroan inskribaturik egotea.
- f) Merezimenduak, lehiaketaldirako.

3.4. Eskabideak aurkezteko epea ezin izango da luzatu.

3.5. Baldintza horiek agiri bidez frogatu beharko dituzte hautatu eta kontratatzen diren izangaiek, kontratuak sinatu aurretik horretarako ezartzen zaien unean.

#### **4. oinarria.- Zerrenden onarpena, hautagaiak eta erreklamazioak.**

4.1. Eskabideak aurkezteko epea amaituta, Sakanako Mankomunitateko lehendakariak ebazpena emango du onartutakoaren eta baztertutakoaren behin-behineko zerrenda onartzeko eta Mankomunitateko iragarki-oholean eta web orrian ([www.sakana-mank.eus](http://www.sakana-mank.eus)) argitaratzeko aginduko.

4.2. Baztertutako izangaiek erreklamazioak egin eta, hala badagokio, akatsak zuzendu ahal izango dituzte, behin-behineko zerrenda argitaratu eta hurrengo 3 egun baliodunen barruan.

4.3. Erreklamazioak aurkezteko epea igaro eta erreklamazioak ebatzi ondoren, Sakanako Mankomunitateko lehendakariak onartutakoaren eta baztertutakoaren behin betiko zerrenda onartzeko

ebazpena emango du, eta zerrenda udal-taulan eta sakana-mank.eus webgunean argitaratzeko aginduko du. Ebazpen horretan, oposizio-ariketak hasteko eguna, tokia eta ordua adieraziko dira.

4.4. Onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda behin betiko bihurtu ahal izango da berehala, izangaien bazterketarik gertatzen ez bada.

4.5. Onartutakoen eta baztertutakoen zerrendetan agertzeak ez du esan nahi interesdunei deialdian eskatutako betekizun guztiak betetzen dituztela aitortzen zaienik. Izangaiek aurkeztu beharreko dokumentazioa edo Administrazioaren esku dauden baldintzaren bat betetzen ez duela ondorioztatzen bada, interesdun horrek deialdian parte hartzetik erator daitezkeen eskubide guztiak galdu egingo ditu.

4.6. Euskararen ezagutza agiri bidez egiaztatu ez duten izangaiek egin beharreko proba onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda argitaratu ondoren egingo da, hautaketa-prozesuari hasiera eman aurretik. Horretarako, 4.3 atalean adierazitako ebazpenean, proba egiteko eguna, ordua eta lekua adieraziko dira.

Horretarako, epaimahaiak Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuaren laguntza eskatuko du.

Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak euskara hizkuntza-mailako berariazko ariketa bat egingo die B1 mailako nahitaezko ezagutza agiri bidez egiaztatzen ez duten izangaiei, eta emaitzak akta bidez jakinaraziko dizkio unitate eskatzaileari

## **5. Oinarria. Epaimahai kalifikatzailea.**

5.1. Epaimahai kalifikatzaileak kide hauek izango ditu:

-Lehendakaria: Aitor Larraza Carrera, Sakanako Mankomunitateko lehendakaria. Ordezkoa: Oihana Olaberria Jaka, Sakanako Mankomunitateko lehendakariordea.

-Batzordekidea: Ander Eslava de Miguel, Sakanako Mankomunitateko gerentea. Ordezkoa: Iker Manterola Matxain, Sakanako Mankomunitateko gerentea

-Batzordekidea: Olatz Garde Mazkieran, Sakanako Mankomunitateko hondakin teknikaria. Ordezkoa: Alberto Urkia Mendinueta, Sakanako Mankomunitateko Hondakin Zerbitzuaren arduraduna.

-Batzordekidea: Ana Carrillo Simón, langileen ordezkaria. Ordezkoa: Fernando Ihaben Ollakarizketa.

-Mahaikide-idazkaria: Miren Ortiz Olabe, Sakanako Mankomunitateko idazkaria. Ordezkoa: Mankomunitateko udalerriko idazkaria.

5.2. Epaimahaia hautaprobak hasi baino lehen eratuko da.

5.3. Epaimahaia eratu eta haren jarduketak balioa izateko, kide guztien erabateko gehiengoa bildurik izan beharko da. Kide anitzeko organoa balio osoz eratzeko eta jarduteko, lehendakaria eta bokal-idazkaria bertan egotea, edo, bestela, haien ordezkoak bertan egotea beharrezkoa izango da.

5.4. Epaimahai kalifikatzaileko kideek ezin izango dute parte hartu, eta deialdia egin duen organoari jakinarazi beharko diote, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015

Legean aurreikusitako abstentzio-arrazoiak daudenean. Halaber, izangaiek, aipatu gorabeherak suertatuz gero, epaimahaikideak errefusatu ahalko dituzte.

Legez ezarritako abstentzio- eta ezespren-arrazoiak aplikatzeagatik epaimahaiaren osaeran aldaketaren bat gertatzen bada, epaimahai berriaren osaketa argitara emango da onartutako eta baztertutako izangaien zerrendekin batera.

5.5. Deialdiko oinarriak ulertu eta aplikatzerakoan sortzen diren afera guztiak gehiengoz erabakiko ditu epaimahaiak.

## **6. oinarria.- Hautaketa prozesuaren gauzatzea.**

### 6.1. Oposizioaldia:

6.1.1. 6.1.3. Onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda onartzen duen ebazpenean, oposizioko probak non, noiz eta zer ordutan egingo diren zehaztuko da. Ebazpena mankomunitateko web gunean eta iragarki oholean argitaratuko da.

Oposizio-probaren deialdia, bai eta proba horiek osatzen dituzten ariketa bakoitzarena ere, deialdi bakarraren bidez egingo da, eta izangaiek Nortasun Agiri Nazionala, pasaporte, gidabaimena edo Nafarroan baliozkotasuna duen baliokidea eraman beharko dute. Oposiziotik kanpo geratuko dira iragarritako data, ordu eta lekuetan agertzen ez diren edo aipatutako dokumenturen baten bidez identifikatzen ez diren izangaiak.

#### 6.1.2 Ariketak:

- 1) **Ariketa teoriko-praktikoa:** Kasu teoriko-praktiko bati edo batzuei idatziz erantzun beharko zaie. Galdera laburrak izango dira, honako gai hauei buruz: lan-kontrakoaren funtzioak eta/edo mekanika, kamioien mantentze-lanak eta bide-hezuntza, bai eta Mankomunitateak eskaintzen dituen hiri-hondakinen kudeaketari eta kultura orokorriburuzko oinarrizko ezagutzak ere. Gehienez ere 60 puntu lor daitezke ariketa honetan, eta gutxienez 25 puntu lortzen ez dituzten izangaiak hautaketa prozesutik kanpo geratuko dira.
- 2) **Bigarren ariketa:** Epaimahaiak elkarrizketa bat egingen du, deialdi honetako lanpostuarekin zerikusia duen edozein gairi buruzkoa izan daitekeena. Atal honetako gehieneko puntuazioa 10 puntu dira eta ez da baztertzailea izango.

6.1.3. Oposizioa amaitu eta gehienez ere bi egun balioduneko epean, Sakanako Mankomunitateko iragarki-taulan eta webgunean argitaratuko da izangai bakoitzak lortutako puntuazioa.

### 6.2. Lehiaketaldia:

Oposizio-aldian 30 puntu lortu dituzten pertsonen titulazioak bakarrik baloratuko dira. Honetan, gehienez ere 30 puntu emango dira jarraian azaldutako baremo honen arabera eta ez da baztertzailea izango:

Azken bost urteetan peoi edo peoi gidari lanpostu batean izandako esperientzia baloratuko da:

- Nafarroako mankomunitate batean: 0,30 puntu hilabete bakoitzeko.
- Nafarroako beste toki erakundeetan: 0,20 puntu hilabete bakoitzeko.
- Beste administrazio publiko batzuetan: 0,10 puntu hilabete bakoitzeko.

Frogatutako egun kopurua ez balitz hilabete osora iritsiko, proportzionalki dagokion puntuazioa emango zaio.

Aurreikusitako merezimenduak zenbatzeko, zerbitzuak eman diren administrazio publikoek emandako ziurtagiriak aurkeztuko dira.

6.3. Lehiaketaren kalifikazioa amaitutakoan, epaimahaiak Sakanako Mankomunitateko iragarki oholean eta webgunean argitaratuko ditu lortutako guztizko kalifikazioekin gainditutako pertsonen zerrenda eta ordezkapen-poltsa osatuko duen puntuazio-hurrenkera korrelatiboa.

Azken kalifikazioa oposizio-faseko ariketen puntuazioen batuketaren emaitza izango da, betiere izangaia kanporatuta geratu ez bada.

### **7. oinarria.- Gaindituen zerrenda eta ordezkapen poltsaren funtzionamendua.**

7.1. Lehendakaritzaren ebazpen bidez, hautatuak izan diren izangaien behin betiko zerrenda onartuko da. Zerrenda hori Sakanako Mankomunitateko iragarki-taulan argitaratuko da.

7.2. Zerrendetan, probetan lortutako puntuaziorik handienaren arabera ezarriko da lehentasuna. Berdinketaren kasuan, 55 urtetik gorako adina eta emakumea izateari erreparatuko zaio, aipatutako ordenan. Oraindik berdinketak jarraitzen badu, zozketa bidez ebatziko da.

7.3. Oposizioaldian gutxienez 30 puntu lortzen duten pertsona guztiak sartuko dira aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrendetan.

7.4. Mankomunitateko peoi-gidariaren zerbitzuan premiaren bat gertatuz gero, izangaiei dei egingo zaie.

Beharra sortzen den unean (baja, edo absentzia, lanpostua gordetzeko eskubidearekin, edo lanpostu huts berria) hautatutako izangaien zerrendan eskuragarri dauden artean lehenbizikoari deituko zaio.

7.5. Dagokion izangaiari deitu ondoren, berehalakoan esan beharko du baietz, eta orduan aldi baterako kontratatuko da, gidari-peoi lanposturako, kontratazioa ekarri duen egoerak iraun bitartean, edo plaza erregelamenduz bete arte.

Horretarako, izangaiak helbidea eta telefonoa aldatzen badute, behar den denboraz emanen diote horren berri Mankomunitateari.

**Protokolo** honen bidez egingen dira jakinarazpenak:

- 1.–Telefono mugikorreko zenbakira deituko da.
- 2.–Erantzunik ez bada, telefono finkora deituko da.

3.–Erantzunik ez bada, emandako telefono mugikorreko zenbakira sms bat bidaliko da.

4.–Egindako saiakera bakar bati ere ez bazaio erantzuten 30 minutu baino lehen, zerrendako hurrengoari deituko zaio, eta erantzun ez duena azkeneko postura igaroko da.

7.6. Deia egitean norbait ezin bada kontratatu aldi baterako ezintasun egoeran dagoelako, edo amatasun bajaran, edo odol bidezko edo ezkontza bidezko lehen mailako ahaide bat ospitaleratuta duelako, puntuazioaren arabera dagokion postua gordeko zaio zerrendan. Horren ondorioetarako, egoera hori frogatu beharko da, medikuaren ziurtagiriaren bidez, behar denean.

Orobat, zerrendan dagokien postuari eutsiko diote izangaiek baldin deia egiten zaienean Mankomunitatean berean ari badira lanean.

Gainerako kasuetan, deia egitean izangaia onartzen ez badu, hautatutako zerrendako azkeneko postura igaroko da, eta hurrengo izangaia deituko zaio, lortutako puntuen ordenaren arabera.

7.7. Kontratatzen diren izangaiek behar diren ordainsariak jasoko dituzte, plantilla organikoan ezarritakoaren arabera lanpostuari dagozkionak.

Kontratuak Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean afiliatuko dira eta hartan alta hartuko dute, araubide horretan aurreikusten den babesaren pean.

7.8. Kontratua indarrean den bitartean justifikatuki uko eginez gero, uko egileak duen puntuazioaren arabera hartuko du zerrendan dagokion tokia.

Uko egiten den gainerako kasuetan, une horretan zerrendako lehenbiziko tokian dagoen izangaia deituko zaio, eta uko egileari baja emanen zaio hautatutako zerrendan.

7.9. Deialdi honen babespean egiten diren lan kontratuak probaldi bat izanen dute, Langileen Estatutuarekin bat.

Halaber, egiten diren kontratuen indarraldian langilea kanporatzen bada indarreko lan-araudian ezarritako arrazoiengatik, automatikoki baja emanen zaio zerrendan.

## **8. oinarria.– Errekurtsoak.**

Deialdi honen aurka, nahiz bere oinarrien eta aplikazio egintzen aurka, errekurtso hauetakoren bat aurkezten ahalko da:

- a) Berraztertze errekurtsoa, egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.
- b) Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, jakinarazpen hau jaso eta hilabeteko epean.
- c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko arlo bereko salari zuzendua, bi hilabeteko epean, argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hasita.
- d) Epaimahaiaren egintzen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez daiteke, deialdia egin duen udal organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazten denetik hasita.

**Base 9. DATUEN BABESA. Datuen tratamenduaren arduraduna.**

- a) Datuen tratamenduaren arduraduna: Sakanako Mankomunitateko idazkaria.
- b) Datuak babesteko ordezkaria: idazkaria@sakana-mank.eus
- c) Xedea: enplegu deialdiak kudeatzea, betiere botere publikoen jarduna gauzatzeko.
- d) Oinarri juridikoak: Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra 6.1.c.c artikulua: “Tratamendua beharrezkoa da tratamenduaren arduradunari aplikatu beharreko legezko betebeharrak bat betetzeko” (251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duena).
- e) Datuak gordeko diren denbora: datuak adierazitako helburua betetzeko behar den denboran gordeko dira, eta Mankomunitateak tratamenduaren ondoriozko erantzukizunak izan ditzakeen bitartean biltegiatuko dira. Era berean, Artxibo eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legean ezarritako kontserbazio-arauak bete behar dira.
- f) Datuen hartzaileak: Indarreko legedia betez, datuak epaile eta epaimahaiei laga ahal izango zaizkie, eta Udalaren web-orrian, egoitza elektronikoan eta iragarki-taulan argitaratuko dira, deialdian adierazitakoari jarraikiz.
- g) Eskubideak: interesdunek eskubidea dute beren datuak ikusteko, akatsik baldin badago haiek zuzentzeko, bai eta, Mankomunitateko udal bulegoetara joz, haiek ezabatzeko ere.
- h) Era berean, interesdunek erreklamazioa aurkeztu dezakete Datuak Babesteko Espainiako Agentzian, idazki bat bidaliz (Jorge Juan, 6, 28001 (Madrid)) edo egoitza elektronikoaren bidez (www.agpd.es).
- i) Informazio gehiago: Mankomunitatearen web-orriaren pribatutasun politika.

Lakuntzan, 2025eko otsailaren 5a. Lehendakaria, Aitor Larraza Carrera



**INSTANTZIA EREDUA**

Izena: ....., adinez nagusia. Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia: ..... ;  
Jaioteguna:.....(e)ko.....(a)ren.....(e)an; Sorlekua:..... (.....).  
Bizilekua: .....Kalea: ..... Zenbakia:..... Posta kodea: ..... Telefono mugikorra:  
....., e-maila: :.....zure aurrera agertu eta adierazten dut:

- ✓ Eskatzen dudala onartua izatea hautaprobe bidez Sakanako Mankomunitateko Hondakin Zerbitzuan peoi-gidari lanpostua aldi baterako betetzeko hautagai zerrenda osatzeko. Lanpostuak B1 euskara hizkuntza eskakizuna du.
- ✓ Ez dudala karguan aritzea galarazten didan eritasun edo akats fisiko edo psikikorik.
- ✓ Ez dudala karguan aritzea galarazten didan eritasunik edo akats fisikorik nahiz psikikorik.
- ✓ Ez naizela diziplinazko espediente bidez inongo administrazio publikoren zerbitzutik berezia izan eta ez nagoela desgaitua eginkizun publikoak betetzeko.
- ✓ Badudala deialdian adierazten den titulazioa.
- ✓ Betetzen ditudala deialdian eskatzen diren baldintza guztiak eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunerako.

Euskara proba egitea eskatzen dudala.

- ✓ Eskabideari agiri hauen fotokopiak erantsi dizkiodala:
  - Nortasun agiri nazionala.
  - Eskatzen den titulazio akademikoa eta euskara titulua.
  - C gidabaimena eta Lanbide Gaitasunaren Ziurtagiria .
  - Merezimenduak, lehiaketaldirako.
  - Langabezia-txartelaren edo lana hobetzeko txartelaren kopia.

Minusbaliotasuna dudala frogatzen duen agiria aurkezten dudala, erakunde eskudun batek emana

Azaldutakoagatik, honako hau ESKATZEN DUT:

Eskatzen dut onartua izatea eskatzen dudala hautaprobe bidez Sakanako Mankomunitateko Hondakin Zerbitzuan peoi-gidari lanpostua aldi baterako betetzeko hautagai zerrenda osatzeko.

Lakuntzan, 20.....ko .....aren.....( e)an.

(sinadura)

**DATUEN BABESA. Tratamenduaren arduraduna: Sakanako Mankomunitatea Xedea: Langileak hautatzea eta deialdi honen xede den lanpostua betetzea da deialdi honen xedea. Eskubideak: datuetara irispidea izateko, haiek zuzentzeko eta ezerezteko eskubideak, baita beste hainbat eskubide ere.**